ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko urriaren 23a, ostirala • 122 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Behin-behineko onespena ematea 2027ko ekitaldirako ordenantza fiskal eta prezio publikoei

2027ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren zenbait ordenantza fiskal eta prezio publikoren aldaketari behin-behineko onespena ematea erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2026ko urriaren 16an egindako Osoko Bilkuran.

Aldatu egin dira tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten udal-ordenantza fiskalak, bai eta zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa, eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorra ere. Indargabetu egiten da udalaren wifi bidezko komunikazio sareak baliatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskala.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zeneko Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da testu osoak jendaurrean jarrita daudela San Martineko udal-bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, interesdunek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau argitaratzen denetik. Helbide elektroniko honen bitartez ere lortu ahal izango da dosierraren edukiari buruzko informazioa: ordenanzas.fiscales@vitoria-gasteiz.org.

2026ko abenduaren 4an bukatuko da erakustaldia. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betikotzat joko dira ordura arte behin behinekoak ziren erabakiak.

Orobat egongo da eskuragarri hemen: www.vitoria-gasteiz.org/zergak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urriaren 16an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.23 05:45:58 Z